

Ugandak tropak bidali ditu Kongoko Errepublikara matxinatuei laguntzeko

Ruandako mugan borrokaldi gogorak gertatzen ari direla dio Kabilaren gobernuak

Uganda, Estatu Batuen erdialdeko Afrikako aliatu nagusia, Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazkan sartu eta errebolta-riei laguntza ematen hasi da. Horrenbestez, bi dira Laurent Desire Kabilaren gobernuaren kontra zuzenean ekin dioten herriak: Ruanda eta Uganda. Iaz bi herrialde horiek izan ziren Mobutu Sese Seko diktadorearen kontra lagundu ziotenak Kabilari.

Agentziak / Kinshasa

IGANDEAN salatu zuen Kongoko Errepublika Demokratikoko Gobernuak Ugandako tropak sartu zirela bere lurretan, baina Ugandak gezurtatu egin zuen. Atzo, ordea, nazioarteko iturri diplomatikoek jakinarazi zuten Laurent Desire Kabilaren gobernuak Informazio ministroak, Didier Mumengik, arrazoi zuela eta Ugandako Armadako hainbat tropa Kongoko Errepublikan sartu zirela tankeekin eta kamioiekin.

Soldadu horien asmoa atzo zortzi Kabilaren erregimenaren aurka oldartu ziren errebolta-riei laguntzea da. Aurretik, Ruandak ere bidali ditu tropak Kongoko Errepublikara eta haiek ere bat egin dute matxinoekin.

Herenegun zortzi, abuztuaren 2an, hasi zen errebolta. Kabilaren kontra altxatu direnak, ekialdeko Kivu eskualdeko banyamulenge tutsiak dira (ruandar jatorriko kongoarrak), eta Kabilaren erregimena totalitarioa dela salatu dute eta orain urtebete boterea hartu zuenean agindutakoak ez dela ari betetzen.

Hain zuzen ere, Kabilak 1996ko udazkenean Mobutu Sese Seko diktadorearen aurka armak hartu zituenean, Kivu eskualdeko banyamulengeak izan ziren harekin bat egiten aurrenekoetakoak. Halaber, orain kontra jarri zaizkion Ruanda eta Uganda izan zituen atzerriko aliatu nagusiak, Angolarekin batera. Angolak, oraingoz,



Laurent Desire Kabila, Kongoko Errepublika Demokratikoko lehendakaria.

CHRISTOPHE SIMON / EPA

neutral mantendu nahi du erdialdeko Afrikako gatazka honetan.

Aurrez esan bezala, errebolta-riei eta haien laguntzaileek Kabilaren agintzeko modua totalitarioa dela kritikatu dute. Kabilaren gobernuak, berriz, «inperio tutsi bat» eratu nahi izatea leporatu die banyamulengeei eta, batik bat, Ruandako eta Ugandako gobernuak.

Kongoko Errepublikako Gobernuak iturriek atzo jakinarazi zuten, borrokaldi gogorak ari ziren gertatzen ekialdean —Ruandako mugatik hurbil— errebolta-riei eta Gobernuaren aldeko tropen artean. Halaber, hainbat egunez matxinoen esku izan diren hego-ekialdeko lurak berreskuratzea lortu dutela jakinarazi zuen Mumengi Informazio

ministroak. Errebolta hasi zene-
tik igandean lortu zuten aurre-
neko aldiz Kabilaren tropek erre-
bolta-riei eraso geratzea.

Dena dela, gatazka luze joko duela uste dute nazioarteko diplomatikoei, batik bat, Ruanda eta Uganda borrokan sartu direla ikusi eta gero. Kabilaren gobernuak hasiera-hasieratik Ruandari leporatu dio matxina-
da bultzatzea eta herrialde horrekin gerran hasteko prest dagoela jakinarazi du. Beraz,

azkenean, gatazka oso eremu zabala hartuko du seguruenera. Hainbat analistaren arabera, Ugandak eta Ruandak beren interesak defenditzeko egin dute bat errebolta-riei, Kivu eskualdean baitago hutuen erretaguardia eta Uganda zein Ruandako gobernuak tutsiak baitira.

Laurent Desire Kabilak iazko maiatzean lortu zuen Mobutu Sese Seko Kongoko Errepublikako (Zairen zen orduan) lehendakari ohia garaitzea. x

Serbiarren ofentsiba berria Albaniako mugan kokatu da

■ NATOk Milosevicen aurkako kritikak indartu ditu

Agentziak / Pristina

SERBIARREK beste ofentsiba bat daramate aurrera UCK Kosovoren Askapenerako Armadaren aurka. Oraingo honetan erasoak Decani eta Djakovica herrien arteko errepidean dira, Albaniako mugan eta Junik herritik gertu. NATOk, Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeak, Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidentearen aurkako kritikak indartu, eta bihar Kosovoko egoerari buruz hitz egiteko Kontseilu Atlantikoa bildu egingo dela iragarri du.

Erasoak aurrera doazen heinean, serbiarren eta Kosovoko alba-

niarren bertsioek ez dute bat egiten. Azken horiek Junik herriaren aurkako erasoak joan den aste bukaeran hasi zela adierazi zuten; serbiarrek berriz, herri horretatik gertu izandako zenbait erasoren berri bakarrik eman zuten.

Joan den astean Jugoslaviako Armadak esan zuen ez zutela Junik bere gain hartu ez zutelako NATOk bertan partehartzea nahi.

Uda honetan Kosovon izandako eraso guztien ondorioz milaka pertsona hil eta desagertu dira. Etxebizitzak utzi dituztenen egoera ere tamalgarria da, gabezia ugari baitituzte, baita sendagai eta janari behar handia ere. x

laburrean

ESTATU BATUAK

■ Clinton datorren asteleheneko aitorpena prestatzen ari da

BILL CLINTON EEBBetako lehendakariak datorren astelehenen deklaratu du Lewinsky auzian. Fox News Sunday telebista kateak egunko inkesta baten arabera EEBBetako emakumeen artean Clintonen ospea %60 jaitsi da. Hori lehendakariarentzat oso emaitza txarra da 1992ko eta 1996ko hauteskundeetan emakume horien botoak izan baitiziren haren garaipenaren giltza. x

E K U A D O R

■ Jamil Mahuad Ekuadorko lehendakari da jadanik

JAMIL MAHUADek atzo egin zuen Ekuadorko lehendakari karguaren zina. 210 gonbidatuen aurrean, arratsaldeko 15:00etan (10:00etan Euskal Herrian) bihurtu zen Mahuad Ekuarko lehendakari. Lehendakari berriak krisian dagoen herrialdi bat aurrera ateratzeko saiatu beharko du. x

M E X I K O

■ Hainbat gotzain Chiapasera joan dira gatazka armatuaren berri izateko

GUTXIENEZ Mexikoko Gotzainen Adiskidetzeta eta Bakerako Batzordeko hamar gotzain joan ziren atzo Chiapasera, bertako gatazka armatuaren berri izateko asmoz. Gotzain horien helburua legegileek Mexikoko gatazka armatu eta indigenei buruz prestatu zuten informazioa osatzea da. Gerrilla zapatistaren eta Mexikoko Gobernuaren arteko bake elkarrizketak 1996ko irailean eten ziren. Orduz geroztik gatazka armatuak ez du irtenbide sendorik aurkitu. Orain gotzainek Chiapasko indigenekin elkarrizketa saioak egingo dituzte. x

A L J E R I A

■ Ustezko 25 terrorista hil dira operazio militarretan

JOAN den asteko ostirala eta larunbata bitartean ustezko hogeita bost terrorista hil ziren Armadaren operazio militarretan. Ekintzarik garrantzitsuenak Frenda eskualdeko mendietan izan zen. Bertan hemeretzi gizonen osatutako talde armatu baten babeslekua aurkitu zuen Armadak. Hemeretzi gizon horiek GIA Talde Islamista Arabiarren barnean dagoen El Ahuel izeneko talde bateko kideak dira. x



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria